

**HUTSIK DAGOEN LANPOSTUA KARRERAKO FUNTZIONARIOZ HORNITU ARTE  
JARDUNGO DUEN ALDI BATERAKO BITARTEKO FUNTZIONARIOA HAUTATZEKO  
OINARRI-ARAUAK. SISTEMA: OPOSIZIO-LEHIAKETA. PLAZA: ARKITEKTOA.**

**LEHENA.- Deialdiaren helburua.**

Erandio Elizateko Udalean hutsik dagoen arkitekto lanpostua oposizio-lehiaketa libre bidez aldi baterako hornitzea da deialdi honen helburua.

Lanpostuak 6.035 kodea du Udaleko Lanpostuen Zerrendan eta honako ezaugarriak ditu: administrazio bereziko eskalakoa da, azpieskala teknikokoa, goi mailako teknikari motakoa. Lansari hauek izango ditu: A1 azpitaldeari dagokion soldata, 26. mailari dagokion lantoki-osagarria, aparteko lansariak, hirurtekoak eta udalak, indarrean dagoen legediarekin bat, erabakitako gainerako lansariak. Derrigorrezko laugarren hizkuntz eskakizuna izendatu zaio lanpostuari.

Lanpostuari dagozkion funtzioak unean uneko udal organigramaren barnean ezarritakoak izango dira. (l. eranskina)

**BIGARRENA.- Hautagaiek bete beharreko baldintzak.**

Honako baldintza hauek bete behar dira hautaketa prozesuan parte hartzeko:

- 1.- Espainiako herritartasuna izatea; hala ere, hori ez da eragozpen izango abenduaren 23ko 17/1993 Legean xedatutakoa aplikatzeko.
- 2.- Hamasei (16) urteak beteta izatea eta derrigorrezko erretirorako adina ez izatea.
- 3.- Arkitekto titulua izatea, edo eskabideak aurkezteko epea amaitzen denerako lortzeko moduan izan.
- 4.- Egitekoak ongi betetzea galaraziko dion gaixotasunik edo elbarritasun fisikorik ez izatea, minusbaliatuak gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legean ezarritakoaren kalte barik.
- 5.- Diziplinazko espediente baten bidez Estatuko, Autonomia Erkidegoko edo Tokiko administraziotik baztertua ez izana eta egiteko publikoak betetzeko gaitasunaz gabetuta ez egotea.
- 6.- Ezintasun zein bateraezintasun legezko arazorik ez izatea, herri-administrazioetako langileentzat aplikagarri diren bateraezintasunari buruzko legeetan aurreikusitakoaren arabera.
- 7.- Laugarren hizkuntza eskakizunaren jabe izatea. Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 97.4 atalean ezarritakoarekin bat etorriz, derrigorrezko eguna duten 4. hizkuntza eskakizuneko lanpostuetarako hautaketetan eta horiek betetzeko prozesuetan izangai batek ere egiaztatzen ez badu, lanpostu horri 3. hizkuntza eskakizuna ezarriko zaio, baina deialdi horretako lanpostua

betetzeko baino ez da.  
Esandako baldintza horiek guztiak bete behar dituzte hautagaiak eskabideak aurkezteko epea amaituko den egunerako eta guztiak bete beharko dituzte izendapena jaso bitartean.

#### **HIRUGARRENA.- Eskabideak.**

Deialdiko bigarren oinarrian eskatutako baldintza guzti-guztiak betetzen dituela adierazi beharko du hautagaiak eskabidean eta eskabidearekin batera curriculum vitae aurkeztuko du, bai eta nortasun agiriaren fotokopia eta azaldutako merezimenduak egiaztatzeko agiriak ere. Ez dira aintzat hartuko gerora aurkeztutako agiriak.

Lehiaketan parte hartzeko eskabideak udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, Korporazioko lehendakariari zuzenduta, deialdiari buruzko iragarkia estatuko eta herrialdeko prentsan argitaratu eta biharamunetik aurrera, 20 eguneko epean.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legean, 38.4 eta 70 artikuluetan zehaztutako moduan ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak.

#### **LAUGARRENA.- Hautagaien onarpena.**

Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hilabeteko epea iragan baino lehen, onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartuko du udalburuak. Erabaki hori udaletxeko iragarki oholean jarriko du ikusgai. Zerrenda horretan baztertutzat emandako hautagaiak 5 eguneko epea izango dute erreklamazioa egiteko eta bazterketa eragin duten dokumentuak osatu edo okerrak konpontzeko. Epe hori igarota, hautagaiak baztertzeko nahiz onartzeko erabakia hartu duen agintaritzak ebazpena emango du aurkeztutako erreklamazioez.

#### **BOSGARRENA.- Balorazio Batzordea.**

1.- Balorazio Batzordearen osaketa:

**a) Lehendakaria:** Titularra: Carlos Enrique MADINA ALLICA.  
Ordezkoa: Amaia ARRIAGA LEJARRAGA.

**b) Mahaikideak:** Titularra: Fernando ARBAIZA DYER. Ordezkoa:  
Javier BASANTE OTEGI.

Titularra: Pilar GAMINDE OTAZUA. Ordezkoa:  
José Luís GONZÁLEZ PUEBLA.

Alkatetzak hautatutako funtzionario bat eta bere ordezkoa

**c) Idazkaria:** Titularra: Manuel L. CORTÉS MIRANDA.  
Ordezkoa: Karmele I. RUIZ ANTOLÍN.

- 2.- Edonola ere, balorazio batzordeak, egoki baderitzo, aholkulariak eduki ahal izango ditu bere kideei laguntza emateko. Aholkulariok beren espezialitate teknikoetara mugatuko dute jarduna, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 31.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.
- 3.- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 28. artikuluan oharmandako inguruabarrak gertatzen badira, Balorazio Batzordeko kideek ez dute parte hartu behar eta horrela jakinaraziko diote Korporazioko lehendakariari. Hautagaiek, bestaldetik, ezespena eragin dezakete, aipatutako Legearen 29. atalarekin bat etorritik, aurreko artikuluan aurreikusitako inguruabarrak gertatuz gero.
- 4.- Balorazio Batzordeko kide guztiak izango dute hitza eta botoa emateko eskubidea idazkariak izan ezik, honek ez baitu botoa emateko eskubiderik izango. Bertaratutako kideen botoen gehiengoz hartuko ditu erabakiak Balorazio Batzordeak eta, berdinketarik gertatuz gero, lehendakariaren botoak erabakiko du.
- 5.- Balorazio Batzordeko idazkaria eta Batzordekideak izendatzearekin batera, idazkari-ordezkoa eta Batzordekide-ordezkoak izendatuko dira. Horiek ere izango dira Balorazio Batzordeko partaide. Erandioko Udalean ordezkariak duten alderdietako ordezkari bana ere egon daiteke Balorazio Batzordearen bileretan, parte hartu ahal dute baina ez dute botoa emateko eskubiderik izango.
- 6.- Balorazio Batzordea ezin izango da eratu eta ezin izango du jardun kideen erdiak, -titularrak zein ordezkoak- baino gehiago bertan egon ezean.
- 7.- Hautaketa-prozesuaren edozein unetan, epaimahaiak jakinez gero lehiatzailearen batek deialdiko baldintza guztiak betetzen ez dituela, lehiatzailea deialditik baztertuta utziko du, dagokion entzunaldia egin ondoren, eta honen berri emango dio egun berean hautaketa-prozesuko deialdia egin duenari.

## **SEIGARRENA.- Hautatzeko prozesua.**

Oposizio-lehiaketa sistemari jarraituz bideratuko da hautaketa.

Balorazio Batzordeko kideek emandako puntuazioak batu eta horien eta batzordekide-kopuruaren arteko zatiketa eginik aterako da merezimendu bakoitzeko behin betiko puntuazioa.

Baldin eta trebakuntzaren ikuspegitik emakumeen eta gizonen artean gaitasun bera badago, emakumeei emango zaie lehentasuna, administrazioa dena delako kidego edo eskalan emakumeak %40

baino gutxiago direnean. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak betetzen baditu; kasurako, laneratzeko arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide denean. Berdinketak jarraitzen badu, tokiko administrazioan arkitekto lanetan aritu izanagatik meritu gehien duenari emango zaio lehentasuna. Eta, azkenik, adinez nagusia denari.

### **LEHIAKETA FASEA:**

#### **LANBIDE ESPERIENTZIA:**

- Tokiko administrazioan jardunean aritu izana arkitekto lanpostuaren eginkizunak betetzen: 0,1 puntu hilabete oso bakoitzeko eta 6 puntu gehienez ere.
- Bestelako administrazio publikoetan jardunean aritu izana arkitekto lanpostuaren eginkizunak betetzen: 0,05 puntu hilabete oso bakoitzeko eta 4 puntu gehienez ere.
- Enpresa pribatuetan jardunean aritu izana arkitekto lanpostuaren eginkizunak betetzen: 0,03 puntu hilabete oso bakoitzeko eta 2 puntu gehienez ere.

Administrazio publikoan emandako zerbitzuak administrazioak berak egindako egiaztagirien bidez ziurtatuko dira. Egiaztagiriak honakoak adierazi behar ditu: betetako lanpostua eta jardunean aritutako epea.

Enpresa pribatuetan emandako zerbitzuak honela ziurtatuko dira: enpresak egindako kontratua edo egiaztagiriarekin eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrek egindako Gizarte Segurantzako kotizazioen ziurtagiriekin.

#### **LANPOSTUAN BETE BEHARREKO EGINKIZUNEN ALORREAN EGINDAKO PRESTAKUNTZA ETA HOBETUNTZA IKASTAROAK**

Hautagaiak egindako eta alegatutako prestakuntza zein hobekuntza ikastaro homologatuak: ikastaroen iraupena adierazten duten diplomak, bertaratze ziurtagiriak edo aprobetxamendu ziurtagiriak aurkeztuko dituzte hautagaiak ikastaroak kreditatzeko. Ikastaroan egindako ikastordua eta iraupen osoa adierazi behar dute ziurtagiriek.

Ondoren adieraziko diren gaiekin zerikusia duten ikastaroak besterik ez dira baloratuko:

- Oinarrizko administrazio zuzenbidea
- Hirigintzako planeamendua
- Hirigintzako kudeaketa
- Hirigintza-diziplina
- Ondoko gaiekin zerikusia duten ikastaroak: Eraikuntzaren Kode Teknikoa, irisgarritasun baldintzak eta indarrean dauden eraikuntzari

buruzko gainerako araudi teknikoak bai eta administrazioaren kontratuei buruzkoak.

Ondoren zehazten den irizpidearen arabera baloratuko da, gehienez ere hiru punturekin:

- . Ikastaroak, 20 - 40 ordu bitarteko iraupenekoak ..... 0,50 puntu.
- . Ikastaroak, 41 - 100 ordu bitarteko iraupenekoak ..... 1,00 puntu.
- . Ikastaroak, 101 - 200 ordu bitarteko iraupenekoak ..... 2,00 puntu.
- . Ikastaroak, 200 ordu baino gehiagoko iraupenekoak ..... 3,00 puntu.

Erakunde Ofizialek edo zentro homologatuek emandako tituluaren fotokopia edo titulua emateko eskubideak ordaindu izana erakusten duen agiriaren fotokopia aurkeztu behar dute titulazioak kreditatzeko.

### **OPOSIZIO FASEA:**

Oposizio fasean hautagaiek bi azterketa egin behar dituzte ezinbestean.

#### **LEHEN AZTERKETA:**

- **Teoriko-praktikoa:** Idatziz eta, gehienez ere hiru (3) orduan, azterketa egiten hasi baino apur bat lehenago epaimahaiak prestatutako bi ariketa egin behar dituzte hautagaiek. Ariketa horietan, merezimendu faseko prestakuntza atalean baloratuko diren eta lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duten gaiei buruzko alde desberdinak sartu daitezke.
- Azterketa **nahitaezkoa eta baztertzalea** izango da. **Otik 20** puntura arte baloratuko eta hautagaiek **10 puntu lortu behar** dute, gutxienez, proba gainditzeko.
- Egindako azterketak irakurri egin beharko dituzte hautagaiek epaimahaiaren aurrean horretarako ezarriko den egunean eta orduan; epaimahaiakideek azterketei buruzko galderak egin eta bidezkotzat jotzen dituzten argibideak eskatu ditzakete.

#### **2. AZTERKETA.**

Epaimahaiak **aurrez-aurreko elkarrizketa** egingo die hautagaiei banan-banan, lanpostuaren zereginak betetzeko egokitasuna baloratzearen: gehienez **5 puntu**. Epaimahaiakideek bidezkotzat jotzen dituzten galderak egin ditzakete.

## **ZAZPIGARRENA.- Gainditu dutenen zerrenda. Agirien aurkezpena.**

Hautagaien balorazioa egin ondoren, hautaketa-aldia gainditu dutenen zerrenda argitaratuko du Balorazio Batzordeak, lortutako puntuazioaren arabera. Zerrenda Korporazioko lehendakariari bidaliko zaio izendapen-proposamena egin dezan. Hautaketa-aldia gainditu dutenen kopurua ezin da izan deialdiko lanpostu kopurua baino handiagoa. Zerrendarekin batera, Balorazio Batzordeak azken bileraren agiria bidaliko dio Korporazioko lehendakariari, hautaketa-prozesuko proba guztiak gainditu baina plazarik lortu ez dutenen zerrendarekin (hau ere puntuazioaren arabera). Zerrenda hori plaza lortu dutenen arteko norbait lanpostuaz jabetuko ez balitz lanpostua hurrengoari emateko erabiliko da, baina bestelako eskubide edo itxaropenik gabe ez bada horrelako lanposturen baten, langile premia ez iraunkorren bat betetzeko erabiltzea (gehienez ere hiru urteko eperako).

Proposatutako lehiatzaileek 4 laneguneko epea dute, gainditutakoen zerrenda argitaratzen denetik, udaletxeko Idazkaritza Sailean aurkezteko hautaketa-prozesuan parte hartzeko deialdian ezarritako baldintzen egiaztagiria. Honako hauek aurkeztu behar dituzte:

- 1.- Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia egiaztatua
- 2.- Zinpeko adierazpena, eginkizun publikoak betetzeko gaitasunik gabetuta ez dagoela eta zigor-espeditate bidez inongo herri-administrazioetako zerbitzuetatik bereizita ez dagoela jasotzen duena.
- 3.- Zinpeko adierazpena, Herri-Administrazioetan jarduten duten Langileen bateraezintasunak arautzen dituen abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bateraezintasunen inolako kausatan ez dagoela jasotzen duena.
- 4.- Mediku-egiaztagiria, dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzea galarazten dion gaixotasunik edo muga fisikorik ez duela jasotzen duena .  
Elbarriak diren lehiatzaileek, gainera, beteko dituzten lanpostuetan aritzeko gaitasunik badutela adierazten duen agiria aurkeztu beharko dute, administrazioeko organo aginpidedunak emana.
- 5.- Deialdian eskatutako gainerako baldintza berezien egiaztagiria (Goi mailako arkitekto tituluaren fotokopia egiaztatua).

Funtzionario diren izangaiek ez dituzte aurkeztu beharko aurreko izendapenerako aurkeztuak dituzten baldintzen egiaztagiria. Horrelakoetan, euren egoeraren eta zerbitzu-orrietan azaltzen diren gorabeheren egiaztagiria aurkeztu behar dute. Egiaztagiri horiek ministerio, toki-erakunde edo organismo publikoak egingo ditu, noren menpe dauden.

Adierazitako epearen barruan, ezinbesteko kasuetan izan ezik, agiriak aurkezten ez dituztenak edo agiriak aztertuta ikusten bada baldintzetako bat ez dutela betetzen, ezin izango dira izendatu. Era horretako kasuetan, bertan behera geratuko dira aurretik egindako urrats guztiak, eta horrez gain, litekeena da erantzukizunik eskatzea, eskabidean faltukeria egiteagatik. Halakorik gertatuz gero, aipatutako lehiatzailea

baztertuta, Udalburuak hurrengo izangaiaren aldeko izendapen proposamena egingo du, puntuazio hurrenkeraren arabera.

Aurkeztutako agiri guztiak aztertu ondoren, Korporazioko alkateak praktikaldiko bitarteko funtzionario izendatuko du Balorazio Batzordeak proposatutako hautagaia. Izendatutako hautagaiak berehala hasi beharko du lanpostua betetzen.

#### **ZORTZIGARRENA.- Izendapena, praktikaldia eta prestakuntza.**

Prestakuntza eta praktikaldiak **sei hilabeteko** iraupena izango du. Epea amaitzean, Hirigintza Saileko delegatuak txostena egingo du, non langileak erakutsitako gaitasun profesionalari buruzko irizpena emango duen.

Ondorengo irizpide hauek izango dira kontutan:

- Lana arrazionaltasunez eta eraginkortasunez planeatu eta antolatzeke gaitasuna.
- Gainontzeko langileekin eta jendaurrean harremanak izateko gaitasun egokia
- Interesa, inizatiba eta sortzeko nahiz ekarpenak egiteko gaitasuna.
- Lana ezagutzeko eta egiten ikasteko gaitasuna.
- Lanpostuaren zereginak zurruntasunez betetzeko eta bere gain hartzeko erantzukizun maila.

Hautagaiak prestakuntza eta praktikaldia gainditzen baditu, bitarteko funtzionario izendatuko dute. Prestakuntza eta praktikaldia gainditzen ez baditu, izendapena jasotzeko eskubide guztiak galduko ditu, alkateak emango duen arrazoitutako ebazpenaren bidez.

#### **BEDERATZIGARRENA.- Bitarteko funtzionarioa.**

Legez karrerako funtzionarioek dituzten eskubide eta betekizun bertsuak izango ditu bitarteko funtzionario izendatutako pertsonak, lanpostuan irauteko eskubidea salbu.

#### **HAMARGARRENA.- Intzidentziak.**

Balorazio Batzordeak aginpidea du zalantzak argitu eta, hautaketa-prozesuan arazorik egon ez dadin, oinarri hauetan aurreikusi ez denari buruzko erabakiak hartzeko.

Deialdia, bere oinarriak eta oinarriotatik zein Balorazio Batzordearen jardunetik datozen administrazio-egintza guztiak aurka ditzakete interesatuek, beti ere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezarritako kasu eta moduetan.

Oinarri hauetan arautu gabekoetan, honako hauek hartuko dira kontuan:  
364/1995 Errege Dekretua - Estatuko Administrazioaren zerbitzuko langile izateko Araudi Orokorra onartzen duena-, apirilaren 2ko 7/1985 Legea -Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituena-, Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legea eta horren ondorengo aldaketak, bai eta ezargarri diren gainontzeko erabakiak ere, bereziki, apirilaren 12ko 7/2007 Legea – Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzkoa-

\*\*\* \* \* \* \* \*\*\*

## **LEHEN ERANSKINA**

- 1.- **LANPOSTUAREN IZENA** Obra eta zerbitzuetako arkitektoa.
- 2.- **LANPOSTUAREN KODEA:** 6.035
- 3.- **ATALA:**
  - Hirigintza, Etxebizitza, Planeamendua, Hirigintzako kudeaketa, Jarduketa Estrategikoak, Obrak, Zerbitzuak eta Ingurumena.
- 4.- **NAGUSI HIERARKIKOA.**
  - Arkitekto departamentu burua eta gainontzeko nagusiak.
- 5.- **BERE MENPEKO LANPOSTUAK:**
  - Obra eta zerbitzuetako aparejadorea
  - Hirigintzako aparejadorea.
- 6.- **LANPOSTUAREN OINARRIZKO EGINKIZUNA:**
  - Hirigintza diziplinako espedienteen gaineko txostenak egitea eta ikuskaritza teknikoak.
- 7.- **EGINKIZUN NAGUSIAK:**
  - Hirigintza diziplinako espedienteen gaineko txostenak eta ikuskaritza teknikoak (hirigintza-lizentziak, exekuzio aginduak, hirigintza diziplina, aurri-deklarazioak, hirigintza arauak haustea, zigor espedienteak,...)
  - Egitasmoak eta memoriak egiteko lankidetzak eskaintzea eta gainbegiratzea.
  - Udalaren ardurapeko obren jarraipena egitea.
  - Udal zerbitzuak abian jartzea eta mantentzea.
  - Udal eraikinak mantentzea.
  - Bere menpeko langileen lana koordinatzea.
  - Informatikako tresna eta aplikazioen erabilera aurreratua
  - Agintzen dizkioten eta lanpostua betetzeko eskatu zaion edo jaso duen prestakuntzarekin bat datozen beste zeregin batzuk.

